

ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

LEHENDAKARITZA 2018

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikulua ezarritakoaren arabera, *Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzen ezarpena proposatzen duen edozein erakundek, alde zuzenetik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte beraien aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haien finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta.*

Horrez gain, zehazten du lortu nahi diren helburuek merkatuari eragiten diotenean argi eta garbi identifikatutako akatsak zuzentzerako bideratu behar dela, eta bere ondorioek ahalik eta distortsio txikiena eragin behar dutela.

Lege horrek aipatzen duen diru-laguntzen kudeaketa egiteko hurrengo printzipioak jarraituko dira:

- a) Publizitatea, gardentasuna, aldiberekotasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta ez-baztertzeta.*
- b) Eman duen administrazioak finkatutako helburuak lortzean izandako eraginkortasuna.*
- c) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna.*

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioen alorrean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularrak, Diru-laguntzen Plan Estrategikoak egiteari buruzkoak, hainbat argibide eman ditu horiek ezinbestean egiteari begira.

Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak esleitutako esparruetan gauzatzen du bere jardura Jaurkitzearen Lehendakariak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen dekretu horrek– eta horretarako, Lehendakariaren egitura organikoa, apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren bitartez onartutakoa, erabiltzen du. Horri jarraiki, hiru idazkaritzak osatzen dute Lehendakariaren egitura: Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak. Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiari dagokio Lehendakariaren zerbitzu komuneko koordinazio orokorra, zuzendaritza eta kudeaketa.

Bestalde, genero-arloko aukera-berdintasunaren jardura esparrua Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea organismo autonomoaren esku dago; garapenerako lankidetzaren esparrua Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide publikoko erakundeari dagokio; eta giza eskubideak bermatzeko, sustatzeko eta garatzeko, memoria sustatzeko eta bizikidetzaren demokratikoan aurrerapenak eta garapena lortzeko esparrua Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua erakunde autonomoaren ardurapean dago.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularrari jarraikiz –lehenago aipatu dugu zirkular hori–, Lehendakaritzaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu beharra dago, bai eta hari atxikitako organismo bakoitzaren diru-laguntzen plan estrategikoak ere.

Hori dela eta, jarraian **Lehendakaritzaren 2018ko Diru Laguntzen Plan Estrategikoa** landuko da, eta lehenik eta behin adierazi behar da plana programatikoa dela, -horrelako beste planak bezala- eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Planaren eraginkortasuna abiarazten diren diru-laguntza ildoen baldintzapekoa izango da eta hori, beste alderdi batzuen artean, urte bakoitzean dagoen aurrekontuaren arabera izango da.

Kontuan hartu behar da Lehendakaritzari esleitutako jarduera esparruetan,

- Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2014ko abenduaren 16ko erabakiz, ZTBP 2020-Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana onartu zen.
- Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2017ko urriaren 10eko erabakiz, 2017-2020 Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana onartu zen.
- Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2018ko urtarrilaren 23ko erabakiz, Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Euskadi Basque Country onartu zen eta 2018-2020 Kanpo Harremanetarako Plana ezagutu zen.

Plan horiek zehaztuko dute legegintzaldi honetarako jarduera esparru bakoitzari dagokion plangintza.

Bestalde, aipatu behar da ZTBP 2020-Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekiko erreferentziak ez duela garrantzirik Diru-laguntzen Plan Estrategiko honi dagokionez. Hain zuzen, ZTBP horri lotuta, Lehendakaritzako Aurrekontuan jaso da Berrikuntza Funtzari dagokion aurreikuspena, eta hura, berezko programarekin, Jaurlaritzaren beste sailen bitartez arautzen da diru-laguntzen deialdiei dagokienez, gehienbat Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren, Hezkuntza Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, eta horiei kopuru egokiak transferitzen zaizkie antolatzen dituzten deialdiak kudeatzeko.

Abenduaren 29ko 5/2017 Legean jasotakoaren arabera –lege horren bitartez onartu ziren EA Eren Aurrekontu Orokorak 2018rako–, badira, diru-laguntza izendunekin batera, bestelako diru-baliabideak ere diru-laguntzen bitartez ekiteko hainbat ekimeni; diru-laguntza izendunak ez dira plangintza honen xedea Legebiltzarrak helburu zehatz baterako onartu dituelako. Baliabide horiekin landu dugu 2018ko ekitaldiko diru-laguntzen plana, diru-laguntzen ildoak abiarazte aldera.

Beraz, aipatu beharra dago 2018rako aurreikusitako laguntzek eta diru-laguntzek ondoko ezaugarriak dituztela 2018ko Aurrekontuen Legean jasotakoak izateagatik:

- Sailaren idazkaritza nagusi guztietan daude laguntzen eta diru-laguntzen aurreikuspenak.
- Norgehiagoka-prozedura bidez esleitu beharreko hornidura moduan agertzen dira sariak eta beka ere.

Horregatik guztiagatik, Lehendakaritzari dagozkion diru-laguntzen bidez sutatu beharreko jardueraren plangintza-tresna izan dadin eratu da **Lehendakaritzaren 2018ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa**, ondoko ataletan egituratuta:

1. Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntzak (arlotu gabeak).
2. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntzak, Nazioartekotze Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategiaren esparruan eta Kanpo Harremanetarako 2018-2020 Planean.
3. Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiari dagozkion diru-laguntzak, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020 Planean aurreikusitakoak.

Dena den, aurrekontu-baliabideak izan beharko dira diru-laguntzak emateko.

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

1. LEHENDAKARITZAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZAK (arloan-planei lotu gabeak)

DIRU-LAGUNTZEN ILDOA	HELBURU ESTRATEGIKOA	PROGRAMA/AURREKONTUA /FINANTZAZIOA	INDICADOR
Euskal Gizartearen Egoera saria 2018	Euskal gizartearen gaur egungo egoera hobeto ulertzen lagunduko duten ikerketak eta azterlanak bultzatzea eta sustatzea (137/1996 D)	PROGRAMA: LEHENDAKARITZAREN EGITURA ETA LAGUNTZA 2018ko AURREKONTUA: 9.300 € (18.0.1.01.11.0000.1.453.01.11210.001/F) FINANTZAZIOA: Eusko Jaurlaritza, % 100	Sari bat, accesit bat
Gobernu Irekia/Open Government arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak	Herritarren partaidetza, gardentasuna eta herritarrekiko sareko lankidetzaren bultzatzea, interneten komunikatzeko multimedia eta ikus-entzunezko tresna berriak sustatuz	PROGRAMA: Lehendakaritzaren egitura eta laguntza. Gobernu Irekia/Open Government arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak 2018ko AURREKONTUA: 15.000, (18.0.1.01.16.0000.1.453.01.11210.001/M) 2019ko konpromiso-kreditua, 15.000 FINANTZAZIOA: Eusko Jaurlaritza, % 100	2017ko aurrekontuaren tamaina: 2

KANPO HARREMANETARAKO IDAZAKARITZA NAGUSIA

2.- KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZAK (2018-2020 KANPO HARREMANETARAKO PLANAREKIN LOTUTA; Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA n integratua)

1.- BEKAK

KANPO HARREMANEN ALORREAN PROFESIONALAK ESPEZIALIZATZEKO BEKAK:

AURREKONTUA: 18.0.1.01.21.0100.1.453.01.13110.001/J; **2018: 81.500, 2019ko konpromiso-kreditua: 83.500**

KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN ALORREAN ESPEZIALIZATZEKO BEKAK:

AURREKONTUA: 18.0.1.01.23.0100.1.453.01.13110.002/K; **2018: 40.000.**

HELBURUA: Ekintza ildo 1.3: Adimena eta ezagutza sustatzea nazioartekotzearen alorrean.

JARDUERA: 1.3.4: Kanpo Harremanetarako beka

Adierazlea: Gehitutako bekadunen kopurua: 8

2018-2020 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

01 HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskadi eragile global bihurtzea

EKINTZA ILDOA: 1.3.- Lehia adimena eta errekonozimendua sustatzea nazioartekotzearen alorrean.

Jarduera: 1.3.4: Kanpo Harremanetarako beka

Plan adierazlea : 1.3.4. Kanpo harremanetarako beken deialdia

- Gehitutako bekadunen kopurua: 8 (2018ko aurrekontu ekitaldia)

2.- PREMIA LARRRIAN DUEN KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEAREN DIRU-LAGUNTZAK

AURREKONTUA: 18.0.1.01.23.0000.4.453.01.13110.0001.001/I ; **2018: 202.000.**

Helburua: 3.3 ekintza ildo Euskal gizartearen diasporara zabaltzea eta kanpoan den euskal komunitatea sendotzea

Jarduera: 3.3.4 Kanpoan den euskal komunitateari laguntzea

Adierazlea:

- Premia larrietarako laguntza jasotzen duten familia kopurua: 100

2018-2020 KANPO HARREMANETARAKO PLANA
3 HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskal interesak sustatzea munduan
EKINTZA ILDOA: 3.3 ekintza ildo. Euskal gizartea diasporara zabaltzea eta kanpoan den euskal komunitatea sendotzea Jarduera: 3.3.4 jarduera. Kanpoan den euskal komunitateari laguntzea PLAN adierazlea: A4.4.1. Premia larrian dauden familiei laguntza ematea: – Premia larrietarako laguntza jaso duten familia kopurua: 100

3.- EUSKAL ETXEENTZAKO ETA EUSKAL ETXEON FEDERAZIOENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK (Jarduera gastuak, 4. kapitulua):
AURREKONTUA: 18.0.1.01.23.0000.4.454.99.13110.003/E ; 2018: 117.345, 2019ko konpromiso-kreditua: 664.961
Helburua: 3.3 ekintza ildo, Euskal gizartea diasporara zabaltzea eta kanpoan den euskal komunitatea sendotzea Ekintza: 3.3.4 jarduera Kanpoan den euskal komunitateari laguntzea Adierazleak: – Euskal etheen jarduera kopurua, diru-laguntzen ildoen bitartez lagundutakoak: 600
2018-2020 KANPO HARREMANETARAKO PLANA
3 HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskal interesak sustatzea munduan
EKINTZA ILDOA: 3.3 ekintza ildo. Euskal gizartea diasporara zabaltzea eta kanpoan den euskal komunitatea sendotzea Jarduera: 3.3.4 jarduera Kanpoan den euskal komunitateari laguntzea PLAN adierazlea: – Euskal etheen jarduera kopurua, diru-laguntzen ildoen bitartez lagundutakoak: 600

4.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK (Inbertsioetarako gastua. 7. kapitulua):
AURREKONTUA: 18.0.1.01.23.0000.4.754.91.13110.002/E ; 2018: 18.000 , 2019ko konpromiso-kreditua: 102.000
Helburua: 3.3 ekintza ildo, Euskal gizartea diasporara zabaltzea eta kanpoan den euskal komunitatea sendotzea Ekintza: 3.3.4 jarduera Kanpoan den euskal komunitateari laguntzea – Diru-laguntzen ildoen bitartez lagundutako euskal etxean kopurua: 10
2018-2020 KANPO HARREMANETARAKO PLANA
3 HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskal interesak sustatzea munduan
EKINTZA ILDOA: 3.3 ekintza ildo. Euskal gizartea diasporara zabaltzea eta kanpoan den euskal komunitatea sendotzea Jarduera: 3.3.4 jarduera Kanpoan den euskal komunitateari laguntzea PLAN adierazlea: Ez da jaso

5.-GAZTEMUNDU 2018 PROGRAMA

AURREKONTUA: 18.0.1.01.23.0000.1.454.99.13110.004/T; **2018:** 51.600

HELBURUA: 3.3 ekintza ildo. Euskal gizartea diasporara zabaltzea eta kanpoan den euskal komunitatea sendotzea

Ekintza: 3.3.2 XXI. mendeko euskal komunitatea

ADIERAZLEA:

- Gaztemundu programako partaide kopurua: 15

2018-2020 KANPO HARREMANETARAKO PLANA

3 HELBURU ESTRATEGIKOA: Euskal interesak sustatzea munduan

Ekintza ildo: 3.3 ekintza ildo. Euskal gizartea diasporara zabaltzea eta kanpoan den euskal komunitatea sendotzea

Jarduera: 3.3.4 Kanpoan den euskal komunitateari laguntzea

PLAN adierazlea:

– Gaztemundu programako partaide kopurua: 15

GIZA ESKUBIDE, BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

3.- GIZA ESKUBIDE, BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZAK (2017-2020ko Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planari lotuta):

1.- BAKEARI, BIZIKIDETZARI ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO PROIEKTUAK (UDALEI ETA TOKIKO ERAKUNDEEI zuzendutako diru-laguntzak):

AURREKONTUA: 18.0.1.01.31.0000.4.422.01.46210.001/P; **2018: 125.000, 2019ko konpromiso-kreditua: 125.000.**

ETORKIZUNA: BIZIKIDETZAREN ERRONKA BERRIEN AGERTOKIA.

Helburua: Programak bultzatzea, norberaren inplikazioa eta gizartearen erantzukizuna sustatzeko bizikidetza eta giza eskubideen alorrean.

2. ekintza: Udalentsako diru-laguntzak.

Adierazleak:

- Espediente kopurua: 98
- Parte hartu duten erakundeen kopurua: 74

2017-2020 BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN PLANA

EKIMENA	EMAITZAREN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
11. ekimena. Partaidetza (bizikidetza eta giza eskubideen kultura)	Lurraldeka: - Inbertitutako aurrekontua. - Garatutako ekintza kopurua. - Parte hartzaileen kopurua.	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

2.- UZTAILAREN 28KO 12/2016 LEGEA EZARTZEA

AURREKONTUA: 18.0.1.01.31.0000.4.453.02.46210.002/P; **2018: 1.446.000**

ORAINA: BIZIKIDETZA NORMALIZATZEAREN AGERTOKIA

Helburua: Biktima guztien aitortpena eta horiei ordaina emateko prozesu guztiak osatzea eta bizikidetza eraikitzen parte har dezaten bultzatzea

4. ekintza: Uztailaren 28ko 12/2016 Legea ezartzea

Adierazlea: Izapidetutako espediente kopurua: 88

2017-2020 BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN PLANA

EKIMENA	EMAITZEN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
4.ekimena Biktimak	· Laguntza ekintzak · Errekonozimendu ekitaldiak · Gizarte erakundeekiko lankidetzak · Ikerketak eta azterlanak	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

3.- GIZA ESKUBIDE ETA BIZIKIDETZAREN ARLOKO PROIEKTUAK		
AURREKONTUA: 18.0.1.01.31.0000.4.454.99.46210.002/K; 2018: 675.000. 2019ko konpromiso-kreditua: 225.000.		
ETORKIZUNA: Bizikidetzaren erronka berrien agertokia Helburua: Biktima guztien aitortpena eta horiei ordaina emateko prozesu guztiak osatzea eta bizikidetzaren eraikitzen parte har dezaten bultzatzea. 3. ekintza: ELKARTEENTZAKO diru-laguntzak Adierazleak: - Espediente kopurua: 194 - Parte hartu duten erakunde kopurua: 109		
2017-2020 BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN PLANA		
EKIMENA	EMAITZEN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
11. ekimena Partaidetza	<ul style="list-style-type: none"> · Parte hartu duten elkarte kopurua. · Parte hartu duten erakunde kopurua. 	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

4.- "Rene Cassin" GIZA ESKUBIDEEN SARIA.		
AURREKONTUA: 18.0.1.01.31.0000.4.454.99.46210.008/K; 2018: 12.000		
ETORKIZUNA: BIZIKIDETZAREN ERRONKA BERRIEN AGERTOKIA Helburua: Komunikazio eta zabalkunderako erreferentziak sortzea, giza eskubideei, elkartasunari eta enpatiaren aldeko aukerari buruzko konpromisoarekin lotutakoak. 2. ekintza: René Cassin saria Adierazlea: René Cassin saria: 1		
2017-2020 BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN PLANA		
EKIMENA	EMAITZEN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
10. ekimena Zabalkundea (Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)	<ul style="list-style-type: none"> · Inbertitutako aurrekontua. · Garatutako ekintzen kopurua. · Parte-hartzaileen kopurua. 	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

5.- ITZULI BEHARRIK GABEKO DIRU-LAGUNTZAK TERRORISMOAREN BIKTIMENTZAT		
AURREKONTUA: 18.0.1.01.31.0000.40453.02.46210.001/K; 2018: 139.250		
ORAINA: BIZIKIDETZA NORMALIZATZEAREN AGERTOKIA Helburua: Biktima guztien aitortpena eta horiei ordaina emateko prozesu guztiak osatzea eta bizikidetzaren eraikitzen parte har dezaten bultzatzea. 1. ekintza: Terrorismoaren biktimekiko elkartasunaren 4/2028 Legearen espedienteak izapidetzea. Adierazlea: Espediente-kopurua: 43		
2017-2020 BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN PLANA		
EMAITZEN ADIERAZLEAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK
4. ekimena Biktimak	<ul style="list-style-type: none"> · Laguntza-ekintzak - errekonozimendu-ekitaldiak · Gizarte-entitateekiko lankidetzaren · Ikerketak eta azterlanak 	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina

6.- ELKARREKIN BONUEN PROGRAMA		
<ul style="list-style-type: none"> ○ HERRITARREN PARTAIDETZA alorra (11. EKIMEN-PLANA) ○ UDAL alorra (11. EKIMEN-PLANA) ○ HEZKUNTZA alorra (9. EKIMEN PLANA) 		
AURREKONTUA: 18.0.1.01.31.0000.4454.99.46210.012/P; 2018: 500.000		
2017-2020 GIZA ESKUBIDE, BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZAREN PLANA		
EKIMENA	EMAITZEN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
UDAL ALORRA 11. ekimena. Partaidetza (Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura)	<ul style="list-style-type: none"> · Parte hartu duten elkarte kopurua. · Parte hartu duten erakunde kopurua. 	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina
ETORKIZUNA: BIZIKIDETZAREN ERRONKA BERRIEN AGERTOKIA Helburua: Gizarte eragileen lankidetzaren bitartez bizikidetzaren normalizatuaren kultura sendotzea, iraganari buruzko memoria duena, bat datorrena eta irekita dagoena giza eskubideen agenda berriaren aurrean 7. ekintza: Herritarren partaidetzarako ekimenak zehaztea eta bultzatzea Elkarrekin Bonu-programaren bitartez. Adierazleak: <ul style="list-style-type: none"> - Lagundutako ekimen kopurua: 41 - Parte hartu duten gizarte erakunde kopurua: 16 		

EKIMENA	EMAITZEN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
UDAL ALORRA 11. ekimena. Partaidetza (Bizikidetzeta eta giza eskubideen kultura)	Lurraldeka: - Inbertitutako aurrekontua. - Garatutako ekintzen kopurua. - Parte-hartzaileen kopurua.	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina
ETORKIZUNA: BIZIKIDETZAREN ERRONKA BERRIEN AGERTOKIA Helburua: Gizarte eragileen lankidetzaren bitartez bizikidetzeta normalizatuaren kultura sendotzea, iraganari buruzko memoria duena, bat datorrena eta irekita dagoena giza eskubideen agenda berriaren aurrean. 6. ekintza: Elkarrekin Bonu-programa garatzea udalekin. Adierazleak: - Lagundutako ekimen kopurua: 23 - Parte hartu duten gizarte erakundeen kopurua: 13		
EKIMENA	EMAITZEN ADIERAZLEAK	ERAGIN-ADIERAZLEAK
HEZKUNTZA ALORRA 9. ekimena Hezkuntza (Bizikidetzeta ta giza eskubideen kultura)	· Inbertitutako aurrekontua. · Ikastetxeen eta garatutako ekintzen kopurua. · Parte-hartzaileen kopurua.	Kalitatea Gogobetetasuna Egokitasuna Premiak Eragina
ETORKIZUNA: BIZIKIDETZAREN ERRONKA BERRIEN AGERTOKIA Helburua: Hezkuntza lanabesak sortzea eta gizarte eta hezkuntza elkarreaginak sendotzea bizikidetzaren ebatzi gabeko erronka sortu berrien aurrean. 3. ekintza: Elkarrekin Bonu-programa garatzea hezkuntzan. Adierazleak: - Lagundutako ekimen kopurua: 180 - Parte hartu duten erakunde kopurua: 28		